

FUNTSEZKO JARDUERAK

Merx gure webgunean eskaintzen dugun produktu sorta diseinatzeko eta ekoizteko gaitzen den enpresa bat da. Hasieran, ekoizteko ekintza gure eskuetatik burutuko da baina enpresa hazi ahala, produkzio-esparruan espezializatutako langileak kontratatuko ditugu, hau da, bilatzen dugun profila betez gero gure enpresan, esleitutako zereginak behar bezala betetzeko aldeztu aurretiko prestakuntza izango dute.

Gure enpresak on line salmentak egiten dituenean, bada ekintza hori arduratu behar duen norbait ere. Hori dela eta, erabaki dugu gu izango garela, ekoizteaz gain, gure webgunean eta beste harreman-motetaz arduratuko garenak bai gure bezeroekin, baita banatzaile eta hornitzaileekin ere. Ekintza hau behar bezala aurrera eramateko, gutako bakoitzak gutxienez ezagutza-base bat eskaintzen digun ikastaro espezializatuera sartuko gara, gure enpresak epe luzera hobetu dezan. Hala eta guztiz ere, aurretik aipatu dugu etorkizunean langileak kontratatzea aukeratuko dugula baina gu izango gara bazkideok, langileak izanda ere, gure webgunea eta bestelako harremanak kudeatuko ditugunak.

Hala ere, gure enpresak bazkide berriak dituela onartzen badugu, haien eros-ahalmenaren araberakoa izango da gure enpresak egin behar dituen ekintza horiek guztiak ardura hartu eta komentatzeko gai izango diren. Azpimarratzen dugu azken puntu hau bazkide bakoitzaren kontratuaren adosten denarekiko araberakoa izango dela.